

ERRUMANIAKO KARPATOAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Jon I. Hueso Fernandez
(Santurtzi, 1957)

Bilbon urte askoan bizi eta gero, gaur egun Zallan bizi den Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziaduna den Jo Hueso, batik bat penintsulako mendietan barna ibili izan da. Dolomitetan ibilia da, baina Pirinioak eta Euskal Herriko mendiak ezagutzen ditu hobekien.

Saua Crapatuni

EKAINAREN 20A

Arratsaldeko 16:00ak, Bilboko Indautxu aldeko metro geltokia dugu abiapuntu, hemen hasten delako gure abentura txikia, orain dela hiru hilabete Enriquek proposatutako ekimen baten ondorioz. Hemendik Loiuako aireportura abiatzen gara autoz eta, ohiko tramiteak egin eta gero, 18:00etan irteten gara Bukaresterantz, München geldialdi laburra egingo dugularik. Makilak eta pioletak daramatzagunez, materiala babesteko Loiu plastikoz biltzen ditugu motxilak. Europar Batasuneko hiritarrak izanik, nahikoa dugu NANA edo pasaportearen erakustearekin. Ordu txikietan heltzen gara Errumaniako hiriburura, goizeko 01:00ean. Internet bidez alokatutako autoa hartu eta geuk eramandako nabigatzaileari esker, 02:00etarako hitzartutako hotelean gaude, Villa Tamara izenekoa. Atea itxita dago eta, minutu batzuk pasatuta, lo aurpegia duen gaueko txandako arduradunak egiten digu sartzeko gonbita.

Zuzenean ohera. Hotela ez da bereziki eroso eta, harrigarria bada ere, igogailurik ere ez dauka. Gure logela laugarren solairuan dago eta leihoetan ez dago ez pertsianarik, ez gortina lodirik. Eskerrak handia den.


EKAINAREN 21A

Gure lehenengo eguna Errumanian. Gosari legea bete eta gero (nahikoa eskasa, egia esan), goiza Bukarest bisitatzeko profitatzen dugu. Hoteletik hurbilen dagoen Palatui Parlamentuluitik hasten gara eta, beti oinez, Paris Txikia ezizenaz ezagutzen den alde zaharrerantz zuzentzen ditugu geure pausoak. Stavropoleus kaleak mezezi du bisita, baita beste inguruko toki askok ere: Pasajul Vilarosse eta Macca, Victoriei kalea, Baserica Stavropoleus, Biserica St. Nicolae, Plata Universitatii aldeko eraikinek... Gomendio garrantzitsu bat: oinezkoa bazara, kalea zeharkatu baino lehen, begira ezazu alde bietara behin, birritan eta, agian, hirutan ere.

Sibiura hiriaren Alde Zaharra txikia da, baina ederra oso

Dirua aldatzeko aprobeztatzen dugu, Errumania Europar Batasuneko kidea izan arren, bertako lei txanpona nagusi baita edozein tokitan. Horretarako, lagun errumaniar batek emandako aholkuari jarraituz, bulego ofizial batean egiten dugu trukea (egiozue uko aireportuan bertan trukea egiteko tentaldiari, garestiago aterako baitzaizue). Gogoan izan Bilbon bidaiari ekin baino lehen leiak lortzea oso zaila izaten dela.

Eguerdi aldera, lehenengo euri tantak erortzen diren bitartean, Smardan kalean oso ugariak diren kutsu errumaniarreko jatetxeetariko batean bazkaltzen dugu. Arratsaldeko lehenengo orduetan Bukarestetik Sibiura doan bidaiari ekiten diogu eta errumaniar batzuen gidatzeko modu arriskutsuaren berri jasotzen dugu, oso sarritan ikusten baitira marra jarraituaren errespetatze ezak, debekatuta dagoen



Bran



tokietan aurreratzea, kontrako bidea inbaiditza... Hirugarren bide birtuala egongo balitz bezala dabil gidari asko. Zorionez, onik eta salbu heltzen gara Sibiura, paisaiaz disfrutatuz. Class hotolean trasteak utzi eta gero, hiriaren erdigunera hurbiltzen gara taxiz. Alde zaharra txikia da baina ederra oso. Bizerica Evangelica, Catedrala Ortodoxa, Mica eta Mare plazak bisitaturik, Silva markako garagardo goxoa dastatzen dugu.

Afari arina hartu eta hotelera joan gara, hurrengo eguna gogorra eta luzea izango baita.

EKAINAREN 22A

Goizeko 7etan gosari ugari eta indartsu batekin ematen diogu hasiera egunari. Berehala trasteak autoratu eta Sibiutik Victoriara doan errepedean sartzen gara, eskuinaldean Fagaras mendilerroa ikusten dugularik. Eguerdirako Victoriako kanpoaldean gaude eta bertako Lidlen azken momentoko erosketa batzuk egin eta gero, ibilgailua lantegi baten ondoan aparkatzen dugu, hantxe lan egiten duen zaindari batekin, lei batzuen truke, autoa zelatatuko duela hitzartuta.

Ibilbidea, hasiera hasieratik, oso ondo adierazita dago, gorri koloreko hirukien bidez

Motxilaren pisu astuna egiaztatzeak gogortasunari buruzko iragarpene zehatza ematen digu. Ez dakigu zer topatuko dugun gailurretan eta, ondorioz, kranpoiak, pioleta eta abarrak dararmatzagu aldean. Lehenengo sei edo zazpi kilometroak lauak dira, mendietara hurbiltzekoak. Eguzki panelen parke erraldoi baten ondotik pasatu, etxalde batzuk zeharkatu eta, gero eta lokaztuago dagoen bidetik aurrera egiten dugu. Ibilbidea, hasiera hasieratik, oso ondo adierazita dago, gorri koloreko hirukien bidez. Erreka baten ondora ailegatzearekin batera, pista bidezidor bilakatzen da eta hortik aurrera gorantz egingo dugu poliki poliki, aldapa malkartsu batetik, baso eder batean zehar eta erreka alde batetik bestera behin eta berriz gurutzatuz, Turnuri Cabanara (1500 metro) heldu arte. Bertan te bero goxoa eta janari arina hartzen dugu, amasa berreskuratzen dugun bitartean. Hogei minutu beranduago, bidearen azken zatia aurre egiten diogu. Cabanak hornitzeko erabiltzen den asto talde batekin topo egiten dugu. Ordu bete eta hogei minutuan betetzen dugu Turnuri Cabanatik Podragu Cabanara dagoen tarte aldapsua. Podragu Cabanak itxura ederra du kanpotik, toki ikusgarri batean kokaturik, 2136 metrora, Arpasul Great Valley izeneko glaziar haran batean. Barrutik nahiko hornituta dagoela baieztatzen



Balea Lac

dugu: komuna eta ur hotzeko dutxa ere baditu. Jantokia handia eta abegikorra da, baina, garai honetan behintzat, heze eta hotza oso. Bertako arduradun Corinak, harrera ona egiten digu eta kontuan hartu beharreko arauak azaldu. Oraindik bezerorik ez duen logelara igotzen gara eta dau-den ohatzeetarik gustukoenak aukeratzen ditugu. Mantak daude erabilgarri. Geroago, afaltzeko ordura arte gelditzen den tartea betetzeko, ibilalditxo egiten dugu inguruetatik, han ondoan dagoen laku aldera. Tristuraz ikusten dugu nahiko zikin eta zaborrez beteta dagoela, gizakiaren zabarkeria edonon aurki daitekeela baieztaturik.

Afari legea egin eta gero, hurrengo egunerako planari eta planoari ematen diegu errepasoa, etxetik eramandako petakari tragotxo batzuk lapurtzen dizkiogun bitartean. Ondoa dagoen adineko mendizale batekin trukatzeko dugu informazioa: gizon bixia da, jatorri ingelesekoa, konkretatu ezinezko adinean sartuta eta toki askotan egondakoa. Goizeko zazpietarako hitzartzen dugu gosaria Corinarekin eta zuzenean goaz ohera. Enrique berehala daramutzen da lo-zakuaren ordezkari izara eraman izanaz, hotz nabarmena baitago kanpoan.

Motxilak eta makilak mendi lepoan utzita, tarte txiki batean eskuak erabili beharra dago

EKAINAREN 23A

Adostutako orduan hartzen dugu gosaria: te beroa, bi ogi zerra, gurina eta marmelada. Aurretik prestatuta dauzkagun motxila eta makilak hartu eta bideari ekiten diogu. Bidezidorra Podragutik bertatik abiatzen da, hiruki gorri seinalaturik, aldapa nabarmenean gorantz azkar egiten, eta 30 minutuan osatzen dugu Saua Po-

dragului muinorainoko bidea. Hemen bidegurutze garrantzitsua dago: eskuinera Balea Lacerako norabidea hartzen duen bidea doa, eta ezkerre-ra Moldoveanurakoa. Bidea erraza da, nahikoa laua, eta ordubete eta berrogei minutuan egina dago hurbilketa. Vistea Mareren magalpean gaude. Berrehun metro dituen hogeitun minutuko igoera gogor eta aldapatsua gainditzen dugu zailtasunik gabe, Vistea Mare gaina zapaltzeko. Beste hamabost minutuan Moldoveanu gaina ere, azken zati hau egiteko motxilak eta makilak mendi lepoan utzita, tarte txiki batean eskuak erabili beharra baitago (katez ekipatuta dagoen zati erraza). Helburua beteta, zoriotsu sentitzen gara. Suerte ona izan dugu eguraldiarekin eta tontoretik ikusten den paisaia zoragarria da. Ohiko argazkiak atera eta atzera egiten dugu.

Buelta bidean, eta seinaleek eta informazioek adierazten zuten denbora baino dezente gutxiagoan, beste gain batzuetara igotzea erabakitzen dugu. Horrela, besteak beste, Ucisoara, Ucea Mare eta Tarata gailurrak gainditzen ditugu.

Eguraldi eder eta eguzkitsua dagoenez, Podraguren kanpoaldean bazkaltzen dugu paisaiaz disfrutatuz. Ondoren, ohatze gainean etzanda atsedean apur bat hartzen dugu. Arratsaldean, gure lagun batek dioen legez, "atseden aktiboa" egitea erabakitzen dugu eta 2300 metrora dagoen Podragu ondoko mendi batera igotzen gara, poliki poliki. Nahiz eta hotz dagoen, zoragarri dago giroa eta tontorraren ondoan esertzen gara inguruaz gozatzeko. Ustekabean eta oso azkar, eguraldiak okerrera egiten du eta Podragu Cabanara heldu bezain laster, ekaitz gogor batek eraso egiten digu: zeharo ilundu da eta sekulako txingor erauntsia egon da, haizea eta euria ere tarteka. Ia hutsik zegoen Podragu Cabana blaitutako mendizaleez betetzen da poliki poliki, eguraldi ezegonkorretik ihesi. Afalordurako jendez gainezka dago jantokia eta hizkuntza desberdin asko entzuten dira.

Berrehun metro dituen igoera gogor eta aldapatsua gainditzen da Vistea Mare gaina zapaltzeko

Afari mamitsua hartzen dugu eta, aurreko egunean bezala, hurrengo egunerako plana beraztertzen dugu. Aurretik pentsatuta geneukan Podragu Cabanatik Balea Lacerako etapa bertan behera uztea erabakitzen dugu, bi arrazoi direla medio: alde batetik, uste baino askoz luzeagoa delako ibilbidea, autoa Victorian utzi genuela kontuan hartuta, eta, beste aldetik, eguraldiaren aurreikuspena oso txarra delako. Nik neuk, nekearen eraginez, primeran egiten dut lo.

EKAINAREN 24A

Goizeko zazpietarako gosaltzen dugu eta faktura eskatu. Podragu Cabana garesti samar iruditzen zaigu, Errumanian ikusi dugun batez besteko prezioekin alderatuta: 10 € lo egitea, 8 € afaria, 3,5 € gosaria.

Podragutik Victoriara etortzeko erabilitako bide beretik egiten dugu, baina oraingoan euri jasa izugarri baten mende. Ibilbidea osatzeko bost ordu eta erdi behar ditugu. Ekaitza dugu lagun eta bidea egoera txarrean dago, lokatzez beteta, irristakorra oso. Erorikoren bat edo beste izaten dugu, baina umoretsu amaitzen dugu ibilbidea. Hala ere, bukaeran galtzontzilo eta guzti aldatu beharrean gaude, blai eginda.

Victorian dagoen Lidl supermerkatuan beharrezkoak ditugun gauza batzuk erosteko aukera baliatzen dugu, baita herriko banketxe batean dirua trukatzeko ere. Victoria, orokorrean, herri itsusia da, eraikin asko Sobietar Batasunetik ekarri eta aurrez egindako porlanezko horma grisez eginda daude. Hala eta guztiz ere, banketxean gomendatu diguten jatetxe batean egiten dugu bazkaria eta, gure harridurarako, egoki sukaldatuta eta tamainaz amaiezina diren platerak dastatzeko aukera izan dugu, bertako hala moduzko ardo batez lagundurik.

Arratsaldeko laurak aldera, Balea Lacera abiatzen gara autoz. Errepidearen lehenengo zatia zuzena eta laua da. Azken herena, ordea, aldapatsua eta bihurturatsua oso. Trans-Fagaras errepide ezagunean gaude, Karpatoak alde batetik bestera zeharkatzen dituen eta, elurraren ondorioz, urte erdi gutxi gorabehera itxita egon ohi dena. Balea Lacera heldu gara, 2034 metroko mendatea, hiruzpalau hotel eta bi dozena salmenta etxola dituen. Orokorrean, tokia ederra bada ere, eraikinek eta agerian dagoen zikin-erriak itsustu egiten dute. Eskerrak Balea Lac izeneko gure hotela laku baten ertzean eta mendi magalean dagoela. Eskerrak ere, berogailua,



Podragutik Victoriarantz

ohe handiak eta ur beroa ere badituela. Goizean bustitako arropak eta traste guztiak aterata, gure logelak ijitoen kanpamendua dirudi, bai itxuraz, bai usainez. Dutxa osagarria hartzen dugu eta arropa lehorrak jantzi. Ingurua ibilaldira batez ezagutzen dugu, paisaiatz aparte nabarmentzeko gauza handirik ez baitugu aurkitzen.

Balea Lac izeneko hotela laku baten ertzean eta mendi magalean dago

Geuk erositako janariatz atontzen dugu afora, hotelaren jatetxeko prezioak garestiegiak iruditzen zaizkigulako. Afaldu eta gero, betiko legez, hurrengo eguneko planari ematen diogu errepasoa, eta inguru honetako mendirik garaiena den Buteanu igotzea erabakitzen dugu. Eguna amaitzeko, Josebak logelara joatea aukeratzen duen bitartean, Enrique eta biok telebistan ematen duten Brasilgo Mundialetako partida ikusten dugu, "tuica" izeneko bertako pattarra probatzen dugun bitartean.

EKAINAREN 25A

Ohitura bilakatu den ordutegiari jarraituz, zazpietan gosaltzen dugu. "Self-service" a dela aprobetxatuz, ondo eta ugari berdintzen ditugu geure sabelak. Traste guztiak jaso eta autoan sartzen ditugu, "atake" motxila batzuk izan ezik, haietan bi ordu eta erdiko ibilbiderako gutxienekoak sartzen ditugularik. Hoteletik bertatik

ekiten diogu bideari, eguzkitsu eta hotz agertu den goiza dastatuz. Bidezidorra hasieran hiru ki urdinez eta geroago gurutze urdinez dago adierazita, nabarmen. Caprei Saua lepoa gainditzen dugu ordu erdi batez, eta handik ezkerreara jotzen duen bidezidorrari jarraituz, beste ordubeteko ibilbidean zapaltzen dugu Buteanu gaina. Azken zatiak eskuen laguntza eskatzen du, derrigorrez, nahiz eta zailtasun gutxikoa izan. Handik ikusten den ingurua zoragarria da: ia Transilvania osoa dugu begien aurrean. Derrigorrezko argazkiak eginda, atzera egiten dugu. Autoan sartu eta Zarnestirantz abiatzen gara, bi ordu eta erdiko bidea dago eta.

Zarnestin autoa toki egokian aparkatu dugu, bi egun barru itzuliko baikara, eta Balea Lacetik prestatuta dakartzagun motxilak lepoan hartuta ekiten diogu bideari. Autobus geltokitik abiatzen gara, GPSetan dugun trackari jarraituz, Magura izeneko herrirantz doan pistatik gidatzen gaituena. Herrian bertan, hango txakur bat elkartzeko zaigu eta Curmaturaraino lagunduko gaitu. Herriaren kanpoaldean bazkaltzen dugu. Bidea markatuta dago, hasieran marra gorri-zuriz eta geroago lauki urdinez. Hasiera hasieratik goaz erreka baten ondok eta berehala sartzen gara arroilen artean, oso tarte eder batean, han-hemenka eskalatzeko aukerak eskaintzen dituena. Orain arte, ia-ia laua izan da bidea baina, ibilaldiaren erdira heltzen garenean, pistatik irten eta igoera gogor eta azkar bati ekiten diogu, baso ilun bezain eder eta isila zeharkatuz.

Abiatu ginenetik bi ordu eta erdi betetzen direnean, Curmatura Cabanara heltzen gara eta ordura arte gurekin etorri den txakurra izutu egiten dute sarreran agertzen diren San Bernardoak eta mastinak. Aterpea oso toki ederrean dago eta handik Piatra Craiului parkearen ikuspegi zabala dago. Barnetik polita da eta ondo hornitua dago, jantoki zein egongela handi eta zabalak dituen aterpea. Zoritxarrez, barruan ez du ez urik ez komunik eta, ondorioz, cabanatik hogeit metrora dauden iturrira nahiz komunera joan behar da, gau betean bada ere. Geuk, aukera dagoela aprobetxatuz, hiruko logela partikularra hartzen dugu, sarrailladuna eta guzti. Prezioa egokia iruditzen zaigu (logela hirukoitzeko 150 lei gaua). Hemen tenperatura atsegina da eta arduradunarekiko harremana oso jatorra.

Bidea markatuta dago, hasieran marra zuri eta gorritz eta geroago lauki urdinez

Instalatu eta beranduago inguru hurbiletik buelta txiki bat ematen dugu. Cabanara itzulita, ekaitza lehertzen da eta sekulako euri jasa erortzen da oso denbora laburrean. Aterpean afaltzen dugu, barazki salda beroa eta Mama-liga, polentaz eta gazta fresko garratzez atondutako errumaniar plater tipikoa. Digestioa ondo egiteko, "palinka" izeneko errumaniar pattarra probatzen dugu.



Arduradunarekin komentatzen dugu hurrengo egunean La Om mendira igotzeko asmoa dugula eta, haren ustez, hamabi orduko ibilbidea da. Ibilbidea osatzeko behar den denboraz eta eguraldi txarraren aurreikuspenaz kezkatuta, goizeko zazpietarako hitzartzen dugu gosaria.

Oheratu egiten gara. Hirurok aldera, hirurok batera irteten gara kanpora txiza larria lasaitzera. Zerua zoragarri dago, izarrez beteta.

EKAINARREN 26A

Goizeko sei eta erdiak aldera altxatu berriak garelara, zeruak berun kolorea erakusten digu. Aterpeko arduradunak euria iragartzen digu. Ez da giro. Honi hamabi orduko joan etorria dugula gehitzen badiogu, panorama ezin hobea daukagu aurretik. Elkarri animoak eman eta motxilak prestatuta, gosari legea betetzera jaisten gara. Sabela ondo berdinduta bideari ekiten diogu. Ibilbidea hiruki gorritz adierazita dago. Hasiera polita dugu, baso trinko eta eder batean zehar, nahiz eta desnibel gorabeheratsu, piko eta gogorak dauden. Ordua bete dugunean erreka bat zeharkatzen dugu eta, handik laster, bi orduko ibilbidea osatzen dugunean, La Tabla izenez ezagutzen den gunera heltzen gara. Oraingoz aterpe dago. Hurrengo helburua Green aterpea da, La Tablatik 30 minutura. Hara heltzeko hiruki eta lauki gorriez markatutako bideari jarraitzen diogu. Green aterpea 1000 metrora dago eta dozena erdi ohatze baino ez dauka, zikinkeria eta utzikeria nabarmen-

ak direlarik. Hemen artalde baten ardura duten bi artzainekin egiten dugu topo eta txakurrek ez gaituzte oso abegikor hartzen.

Haizea agertzen da oso indartsu, eta arropa, txanoa eta eskularruak jantzi behar ditugu

Aterpetik oso gogorra den aldats pikodun bidezidorrari eraso egiten diogu, ia 600 metro desnibela gaindituz lerro zuzenean. Bidea bigun dago eta etengabe irrist egiten dugu baina, azken tartean, zorua hartxintzarrezko bilakatzen da. Hemendik aurrera lainoa trinkotu egiten da eta giroa hoztu: ekaitzak mehatxu egiten digu. Hau gutxi balitz, haizea ere agertzen da oso indartsu, eta arropa, txanoa eta eskularruak jantzi behar ditugu. Gainera laino artean zapaltzen dugu, haizete gogor baten menpean. Argazkiak egin eta berehalaxe egiten dugu behera. Euririk ez orain arte.

Beherako bidean lehen topatu genituen artzainak eta artaldea agurtzen ditugu. Harrigarria bada ere, eguzkia indartsu agertzen da eta ekaitzaren beldurra uxatzen digu. La Tabla inguruan bazkaldu egiten dugu, bidaia osoan mapetan, iragarkietan eta abarretan agertzen diren ibilaldietako denborak komentatzen ditugun bitartean. Gu geu ez gara ibiltari makalak,

baina atletak ere ez. Eta harrigarria egiten zaigu adierazitako denborak hain nabarmen hobetu izana. Gaur, adibidez, hamabi orduan egin behar genuen ibilbidea zazpi ordu eta erdian beteko dugu gutxi gorabehera. Elkarriketak arintzen digu itzulerako bidea eta arratsaldeko lehenengo orduetan Curmaturan gaude berriro.

Iturrian dutxa edo antzeko zerbitzu hartzen dugu eta berrindartuta ikusten dugu geure burua. Oso pozik gaude, mendi helburu guztiak bete ditugulako eta, egun bakarrean izan ezik, eguraldiak errespetatu egin gaituelako. Atsedean apur bat hartzen dugu logelan eta, ondoren, jantokian biltzen gara hurrengo eguneko ibilbidea eta planak aztertzeko. Geroago, Curmaturaren inguruan dagoen xendra batetik ibilalditoxa egiten dugu, baso eder batean zehar.

Afartzeko barazki salda eta saltxitxak jaten ditugu, gogorregiak eta erreegiak dauden arren. Oheratu baino lehen, eguzkiak agur modura opari egiten digun Piatra Craiului parkearen ikuspegi ederraz gozatzen dugu. Arduradunarekin ditugun zorrak kitatu egiten ditugu. Ordu txikietan, txizagura arindu beharrez, zeru izartsuak babestuko gaitu berriro.

EKAINAREN 27A

Ohiko orduan altxatzen gara eta traste guztiak bildu eta motxilaratu egiten ditugu. Jantokira jaisten gara gosaltzeko eta itxura bikaina duen egunak agurtzen gaitu. Curmaturari eta honen



Piatra Craiului parkea

arduradunari agur esanda, Zarnestirantz doan bidezidorrari ekiten diogu. Oraingoan, igotzeko erabili genuen xendra baztertu eta bide berriak eskaintzen digun beste bat hobesten dugu. Hasierako zatia, beti gorantz 200 bat metroko desnibela gainditzen duena, Săua Crepatuni lepotik pasatu eta Turnuraino ailegatzen da. Hiruki gorriez adierazita dago. Puntu honetan, modu bizian egiten dugu beheara aldats pikoan. Aldatsa malkartu samarra denez, tentuz eta astiro ibili behar da. Izan ere, bi kilometro baino ez duen tarte batean 1000 metroko desnibela egiten da. Haranera heltzearekin batera, orain arte karstikoa izan den paisaia goxatu eta berdetu egiten da. Gure begien aurrean Zarnesti bustitzen duen ibaiaren ibilbide zehatza agertzen da, baita Zarnesti hiriaren ikuspegi ederra ere. Azkenean bi orduko ibilbidea lorez, zomorroz eta landarez hornitutako larreen artean egiten dugu, umoretsu eta kalakari. Hirian sartzen gara eta autoa utzitako tokian dagoela ikustean lasaitua hartzen dugu.

Bi kilometro baino ez duen tarte batean 1000 metroko desnibela egiten da

Kamiseta lehorra jantzi eta oinetakoak aldatu egiten ditugu. Berehala, gudan interes handia pizten duen Drakula kondearen gaztelua kokatua dagoen herrirantz abiatzen gara. Ordu

erdi batean erdiesten dugu helburua, eguraldi ederrak lagundurik. Turisten presentzia nabarrena da hemen, errumaniarrak gehienak, eta artisauek nahiz baserriaren produktuen saltokiak ugariak dira. Denbora galdu gabe, sarrerak erosi eta gaztelua bisitatzeari ekiten diogu. Egia hori zor, garai batean han egondako baliozko gauza gehienak –denak ez esatearren– desagertu egin dira. Hala eta guztiz ere, ederra eta bitxia da gaztelua. Bisita amaitu eta oroigarri bakan batzuk erosi eta gero, berriro autoan sartu eta Bucharestiraino ez gara gelditzen.

Bucharestin, Paris Txikiaren inguruko kale batean aparkatzen dugu eta lehenengo egunean ikusi barik geratu zitzaizkigun eraikin, parke, kale eta tabernak bisitatzen ditugu. Ordu biak aldera, bazkaltzeko toki bat aukeratzeko errepidean sartzen gara. Nabigatzaileak bi edo hiru aldiz iruzur egiten digu, baina azkenean ondo eta garaiz gaude autoen alokairurako bulegoan, eta beharrezko tramite administratiboak betetzen ditugu. Aireportuan gaude, fakturatzeko ilaran. Gure harridurarako, etortzean ez bezala, makilak eta pioletak arrisku material legez fakturatu behar ditugu. Arazoa konpondu, aireportutik bueltatxo bat ematen dugu. Itxaronaldia, zorionez, ez da luzatzen, Lufthansa konpainiak eskertzekoa den alemaniar puntualtasunaz enbarkatzeko tramiteak eta aireratzea burutzen baititu.

Etixerako bidean gaude. Etorreran Loiuco lotura München egin genuen eta oraingoan, ordea, Frankfurt, han gutxi gorabehera ordubete emanda. Berriro ere tramiteak eta aireratzea garaiz eta ondo burutzen dituzte eta hamaiketarako Euskal Herrian gaude. Nire semea bila etorri zaigu eta berehala abiatzen gara Bilbora. Bidaia hasiera eman genion puntu berean ematen dugu amaitutzat, elkarri besarkada gozoak emanez. Ikusi arte!

INFORMAZIOA

Parte hartzaileak: Joseba Likona, Enrique Fernández eta Jon Hueso.

Gomendio batzuk: Trekking hau ekainean egin genuen, baina sasoi honetan eguraldia ezegonkorra izaten da, ekaitz eta euria noiznahi.

- Gidatu behar baduzue, erne ibili.
- Erabili ditugun mendi mapak lortzeko zailtasun handiak izan ditugu, denbora dezente erabili. Azkenean Madrilgo Desnivel liburu-dendaren bitartez lortu genituen.
- Egin ditugun ibilbideak ondo eta egoki markatuta egon dira, baina ibilbide ofizialeatik irtenez gero, ez dago gauza handirik. Ematen diren erreferentziak denborak ez dira oso fidagarriak.
- Jendearekiko tratua oso abegikorra izan da eta ez dugu segurtasun arazorik bat ere ez izan.
- Bilbon ez da erraza Errumaniako txanpona den lei-a lortzea, baina Errumanian bertan aldatuta egiteko ez dago arazorik. Errumania Europar Batasuneko kidea da, baina ez da oraindik euroaren eremuan sartu.
- Errumanian sartzeko nahikoa da NANA edo pasaportea.
- Bertako batez besteko bizi maila Euskal Herrikoa baino merkeagoa da.